

UPV/EHU, moztu kolaborazioa militarismoarekin

Uztailaren 6an eta 7an Horizonte Elcano ekimena garatuko da Getarian (<https://horizonteelcano.com>). Bertokoa zen pertsonaia honen figura goraiatzeko prestatuturiko programan lau marina motak batuko dira: arrantzakoa, merkataritzakoa, kirolakoa eta armada. Hain zuzen ere, Horizonte Elcano ekimenaren bultzatzaile nagusien artean Armada espainiarra dago, ekimenaren aurkezpenean Armadaren ordezkaria Ignacio Horcada almirante-ordea presente egonda.

Beste euskal entitate, elkarte eta enpresa kolaboratzaileen artean (baten bat armagintzari lotua) EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskola dago ere. Horrez gain, euskal kostaldean egingo den itsas-zeharkaldian Saltillo-k, Eskola horren belaontziak, parte hartuko du, beste itsasontzi batzuen artean, Armadaren Juan Sebastián Elcano eskola-ontziarekin batera.

Ez da UPV/EHU militarrekin eta armagintza industriarekin harremanetan agertzen den lehenengo aldia. Ez gaitu harritzen beraz, baina haserrea bai sortzen digu. Izan ere, indar armatuekin eta armagintzari lotutako entitateekin UPV/EHUK izan dituen harremanak eta dauzkan kolaborazioak ez dira gutxi izan, aurreko gobernu taldeekin eta oraingoarekin ere. Batzuk aipatzeagatik:

- Ikastaroak eta mintegiak Defentsa Ministerioarekin batera. Haien artean, aipa daitezke 2013an ikasleei zuzendutako bakea, segurtasuna eta defentsari buruzko mintegia¹, 2016ko uztailan UPV/EHUko Ingeniaritza Eskola egindako *Structural Health Monitoring of Military Vehicles* adituen topaketa (NATOk zientzia eta teknologiaren erakundearekin eta Defentsa Ministerioaren Arma eta Materialen Zuzendaritza orokorrearekin batera antolatuta)² edota 2017ko uztailan Donostian egindako *La seguridad y la defensa de Europa* uda ikastaroa³, Ejertzitoaren lau ofizialen parte-hartzearekin.
- UPV/EHUren parte-hartzea Espainiako Plataforma Teknologiko Aeroespazialean⁴, 2017ko urtarrilaren 26ko Gobernu kontseiluan onartua. Plataforma honen bazkideen artean honako hauek daude: TEDAE (Estatuko armagintza enpresen patronala, bere egoitza Plataforma honekin konpartitzen), INTA (Defentsa Ministerioaren ikerketa organismoa), DGAM (Defentsa Ministerioaren Arma eta Material Zuzendaritza Orokorra) eta armagintzan aritzen diren enpresa batzuk.
- Armagintzan parte hartzen duten zenbait euskal enpresekin (ITP, Aernnova, Sener...) hitzarmen eta kolaborazioak izatea, bai ikasleek praktikak egiteko baita ikerketa garatzeko ere^{5,6}.

UPV/EHUko Gobernuaren taldetik argudia daiteke hitzarmen eta kolaborazio horiek legalitatearen barruan daudela eta kasu askotan zentroen autonomiaren barruan edota katedra-askatasunean kokatzen direla. Hori horrela bada ere, UPV/EHUko langileok ezin dugu beste aldera begiratu euskal unibertsitate publikoa halako harremanetan sartzen denean. UPV/EHUren funtzioa euskal jendartearen beharrei erantzutea da eta bere ekimenak hitz hutsetan geratu ezin diren baloreetan oinarritu behar dira. Konbentziturik gaude indar armatuekin eta beste herriak txikitzen dituen euskal armagintzarekin kolaboratzea ez dela sartzen betebeharraren artean, baizik eta kontrakoa. Aniztasun kontzeptu zabalaren barruan denak ez du lekurik, ez behintzat militarismoa eta herrien suntsiketa ahalbidetzen eta normalizatzen dituzten ekimenek.

Kezkagarria iruditzen zaigu ere UPV/EHUko arduradun nagusiek onartzea gure herrian legitimazio oso gutxi daukaten militarismoaren instituzioek beren aurpegia garbitzeko

unibertsitatea erabiltzea. Izan ere, aipatutako jarduera batean Armadaren alboan UPV/EHU-k parte-hartzeak euskal kostaldean itsasontzi militar baten presentzia normalizatzen du.

Ekimen honetatik haratago, zein unibertsitate eredu nahi dugun da muina. Eta diskurtsoaz gain, halako jardueretan islatzen da ere unibertsitatearen izaera.

Horregatik, unibertsitatea pentsamendu kritikorako eta injustiziak eta zapalketa salatzeko gunea izan behar delako ere, artikulu hau sinatzen dugunok (UPV/EHUko irakasle, ikertzaile eta administrazio eta zerbitzuetako langileok) Bilboko Ingeniaritza Eskolari Armadarekin batera egitekoa den ekitaldi honetan bere parte-hartzea bertan behera uztea eskatzen diogu. Era berean, UPV/EHUko Gobernu taldeari eskatzen diogu parte-hartze hau ezestea eta, horretatik haratago, antimilitarismoaren baloreekin bat egitea baita militarismoari eta armagintzari lotutako instituzio eta enprekin harreman guztiak moztea ere. Militarismorik gabeko UPV/EHU baten alde.

¹ 420/38153/2013 ebazpena, Defentsa Ministerioarena; BOE 286, 2013ko azaroaren 29koa. Resolución 420/38153/2013 del Ministerio de Defensa; BOE 286, 29 de noviembre de 2013.

² <http://www.tecnologiaeinnovacion.defensa.gob.es/es-es/Contenido/Paginas/detalleevento.aspx?eventID=285>

³ <https://www.uik.eus/eu/la-seguridad-y-defensa-de-europa>

⁴ <https://plataforma-aeroespacial.es/pae/miembros/universidades/>

⁵ <https://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/aeronautikako-teknologiak-masterra>

⁶ <http://gasteizkoak.org/wp-content/uploads/2016/02/armagintzaLiburua-entero.pdf>

Atxikimendua emateko: moztukolaborazioa@gmail.com (seinalatu izen-abizenak, kolektiboa -IRI / AZP- eta zentroa)

UPV/EHU, detén la colaboración con el militarismo

El 6 y 7 de julio tendrá lugar en Getaria el evento Horizonte Elcano (<https://horizonteelcano.com>). En el programa diseñado para ensalzar la figura de este personaje se unirán las cuatro marinas: pesca, mercante, deportiva y armada. De hecho, uno de los principales impulsores de dicha iniciativa es la Armada española, la cual estuvo presente en la presentación de los actos a través del vicealmirante Ignacio Horcada.

Entre las entidades, asociaciones y empresas colaboradoras (alguna de ellas ligada a la producción armamentística) se encuentra la Escuela de Ingeniería de Bilbao de la UPV/EHU. De hecho, el Saltillo, velero de dicha Escuela, tomará parte en la travesía que tendrá lugar en la costa vasca junto a otras embarcaciones, entre ellas el buque escuela de la Armada Juan Sebastián Elcano.

Ésta no es la primera vez que la UPV/EHU aparece asociada a las fuerzas armadas y a la industria armamentística. Por tanto, no nos sorprende, pero sí nos indigna. En efecto, las colaboraciones que la UPV/EHU ha tenido y tiene en este sentido no son pocas, tanto con anteriores como con el actual equipo de gobierno. Por citar algunas:

- Cursos y seminarios con el Ministerio de Defensa. Entre ellos se pueden destacar el seminario de 2013 sobre paz, seguridad y defensa dirigido al alumnado¹, el encuentro de expertos/as *Structural Health Monitoring of Military Vehicles* celebrado en la Escuela de Ingeniería de Bilbao (organizado conjuntamente con la Organización de Ciencia y Tecnología de la OTAN y la Dirección General de Armamento y Material del Ministerio de Defensa)², o el curso de verano *La seguridad y la defensa de Europa*, que tuvo lugar en julio de 2017 en Donostia con la participación de cuatro oficiales del Ejército³.

- La participación de la UPV/EHU en la Plataforma Tecnológica Aeroespacial Española⁴, aprobada en el Consejo de Gobierno de 26 de enero de 2017. Entre los miembros de dicha plataforma se encuentran TEDAE (patronal de empresas armamentísticas, que comparte sede con la Plataforma), INTA (organismo de investigación del Ministerio de Defensa), DGAM (Dirección General de Armamento y Material del Ministerio de Defensa) y diversas empresas dedicadas a la producción militar.
- Colaboraciones y convenios con algunas empresas vascas con participación en la industria armamentística (ITP, Aernnova, Sener...), tanto para realización de prácticas por parte del alumnado como con fines de investigación^{5,6}.

Desde el equipo de gobierno de la UPV/EHU se puede argumentar que estos convenios y colaboraciones están dentro de la legalidad y que, en muchos casos, hay que contextualizarlos en la autonomía de los centros o en la libertad de cátedra. A pesar de ello, las y los trabajadores de la UPV/EHU no podemos mirar hacia otro lado ante dichas relaciones por parte de la universidad pública. La función de la UPV/EHU es responder a las necesidades de la sociedad vasca y sus actividades se deben de fundamentar en valores que no pueden quedar en simples palabras. Estamos convencidas/os de que colaborar con las fuerzas armadas y con la industria armamentística vasca que contribuye a la destrucción de otros pueblos no forma parte de esas necesidades. Más bien, todo lo contrario. Todo no tiene lugar dentro del amplio concepto de pluralidad. Por lo menos, no las actividades que posibilitan y normalizan el militarismo y la destrucción de los pueblos.

En este sentido también consideramos preocupante que las/los principales responsables de la UPV/EHU acepten que instituciones militaristas con muy poca legitimación en nuestro pueblo utilicen la universidad para lavar su imagen. La participación de la UPV/EHU al lado de la Armada en una actividad como la indicada normaliza la presencia de un buque militar en la costa vasca.

Más allá de este evento, la verdadera cuestión es qué modelo de universidad queremos. Y, más allá del discurso, el modelo de universidad se refleja también en actividades como las referidas.

Por todo ello, y considerando que la universidad debe ser también un espacio para el pensamiento crítico y para denunciar injusticias y opresiones, quienes firmamos este artículo (profesoras/es, investigadoras/es y trabajadoras/es de administración y servicios de la UPV/EHU) solicitamos a la Escuela de Ingeniería de Bilbao que suspenda su prevista participación junto a la Armada en el citado evento. Asimismo, solicitamos al equipo de gobierno de la UPV/EHU que desaprobe dicha participación y, yendo más allá, impulse los valores del antimilitarismo y rompa todas las relaciones con el militarismo y las empresas e instituciones ligadas a la producción militar.
Por una UPV/EHU libre de militarismo.

¹ 420/38153/2013 ebazpena, Defentsa Ministerioarena; BOE 286, 2013ko azaroaren 29koa. Resolución 420/38153/2013 del Ministerio de Defensa; BOE 286, 29 de noviembre de 2013.

² <http://www.tecnologiaeinnovacion.defensa.gob.es/es-es/Contenido/Paginas/detalleevento.aspx?eventoID=285>

³ <https://www.uik.eus/eu/la-seguridad-y-defensa-de-europa>

⁴ <https://plataforma-aeroespacial.es/pae/miembros/universidades/>

⁵ <https://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/aeronautikako-teknologiak-masterra>

⁶ <http://gasteizkoak.org/wp-content/uploads/2016/02/armagintzaLiburua-entero.pdf>

Para adherirse al comunicado: moztukolaborazioa@gmail.com (indicar nombre y apellidos, colectivo – PDI / PAS- y centro)